

Markel Olano



«Kontziente gara EB-Aralarrek gobernura bidea erraztu digula»

1965, Beasain. Filosofian lizenziatua. EAJko kidea da. Alderdi honetako EBBko kide izana.

Gipuzkoako ahaldun nagusi berria da. Hona bere hautaketaz esandakoa: "Ahaldun nagusia izendatzeko unean jendeak serio nengoela adierazi zidan. Egia esan, estu nengoen, ardura sentitu nuen. Oro har, kanpaina hasi eta izendatua izan arte oso esperientzia interesgarria bizi izan dut, herritarren ondo-ondoan egoteak politikaren alde hurbilagoa sentiarazi dit. Ohi baino sentsazio biziagoak jaso ditut, eta halaber, egoera politiko zaila dela eta, une nahasiak ere sentitu ditut!"

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Gipuzkoako ahaldun nagusi berriak ez du ardura berriaren zama ukatzen, ezta karguak karga sinboliko handia duenik ere. Ez du politika norbana-koen lidergoaren arabera ulertzen ordea, talde lanean baizik: "Kudeake-ta politikoaren oinarria talde sendo egokia osatzea da eta horretan ari gara buru-belarri. Arduraren sentsazioa lantaldearekin partekatu nahi dut", adierazi digu Markel Olanok.

Ardurak ardura, Irungo Foru Ogasuna-ren eskandulua tokatu zaizu. Oposizio-ko PSE-EEko Miguel Buen Lacambrak ez du sinesten afera argituko denik.

Batetik, jendea kezkatua izatea logikoa da. Foru Aldundiak irregulartasunak aztertu eta ikertu ondoren fiskaltzaren esku utzi zuen auzia. Hasi da epaiketa, prozesuak ohiko bidea izango du eta guk auziak argitu arterainoko bidea egitea nahi dugu. Bestetik, Miguel Bue-

nek ez badu orain arte egindakoan federik, bada, hori justizian federik ez izatea da. Bere hitzak entzunda hori ondorioztatzen dut behintzat. Hala ere, Buenek justizian konfiantza osoa duela esan ohi du. Dirudienek, bera ahaldun nagusia izanda baino ez genuke fidatu behar justiziaz. Bere jarrera ez da demokratikoa. Beroaldi batean adierazitako hitzak direla pentsatu nahi dut, eta ez era kontzientean eginak.

TERMOMETROA • Markel Olano

Ardurak eta proiektuak tarteko, EBko Mikel Izagirrek "erraste planta geldiarazteko bidea ireki dela" esan du. Nola interpretatu dituzu hitz hauek?

Ez diot Mikel Izagirrek adierazitakoari erantzungo. Gobernu honen jarrera ezaguna da erraste plantaren inguruan sortu den polemikari buruz: EAK eta EAJk hondakin solidoak biltzeko dagoen plangintzari eusten diote, plangintza Aldundiak eta mankomunitateek onartu dute. Guk errauskailuaren beharra ikusten dugu, ez dugu alternatiba hobirik ikusten.

EBtik harago joanez, herri ekimen batzuek alternatibak badaudela diote.

Ez dakit dauden, egon daitezke. Baina Aldundiak eta mankomunitateek, prozesu luze baten ondoren, errauskailuaren eredu egokitzat jo dute. Eskuetan ditugun datuen arabera hori da lanabes egokiena. Egoera hauxe da: eskuduntza udalen esku izan da betidanik eta hauek mankomunitateei eskaini diete. Mankomunitateek erabaki behar dute nondik nora jo. Aldundiak bere iritzia dauka eta plangintza aurrera ateratzen ahaleginduko da, baita udalei zereginean lagunduko ere.

Alegia, aurreko gobernuak hasitako prozesuaren epeak betez gero planta Zubietan eraikiko da. Zuk, hala ere, "mankomunitateek planta geldiarazten badute, onartuko dugu" adierazi duzu. Nik besterik ezin dut esan.

Ezin da ukatu bestelako jarrera bat dagoela ahaldu nagusi berriaren aldetik, zure aldetik, alegia.

Ez zait iruditzen. Kontuan hartu behar da hauteskundeak izan direla eta mankomunitateen osaketa berria dela. Baina oraindik ez da zehaztua zein den egoera berria, egoera berria dela ukatu gabe. EBk aldaketa egon daitekeela dio, baina, adibidez, nik ez dut garbi ikusten PSEren jarrera. Donostiako Udalean PSEk ordezkaritzaren parte inportantea EBri eman dio. Donostiak parte handia du San Markos Mankomunitatean eta PSEk eragin funtsezkoa izan dezake indar aldaketan. Egoe-



"Miguel Buenek justizian konfiantza duela dio. Antza, bera ahaldu nagusia izanda baino ez guke fidatu behar justiziaz".

ra argitzeko dago. Erakundeetan hartuko diren erabakiak errespetatuko ditugula aurrera dezaket, baina nire aldetik ez da jarrera aldaketarik. Agian, sektore batzuek ur tanta bat izugarriko enbata bihurtarazi nahi izan dute.

Zergatik kostatu zaizue horrenbeste gobernu osatzea, orain arte hirukoaren bertutea hainbeste aipatu duzuenen?

Esanak esan, EAJk eta EAK bakoitzak daukan programaren arabera negoziatzioa landu behar izan dugu eta iritsi gara akordio batera. Lehenago egin zitekeela? Emaizta da garrantzizkoena, eta hor dago. Bigarren erronka Jauraritzako eskema Gipuzkoara ekartzea zen, EB-Aralar gobernuan izatea alegia. Programaren ikuspegitik desadostasun sakonak izan dira ordea, eta egongo dira. Ez da posible izan.

Zein neurrian kezkatzen zaitu Gipuzkoan hirukoaren bidez adostasuna ez lortzek?

EB Bizkaiko Aldundiko gobernuan ere ez dago. Gipuzkoan polemika biziagoa izan da, egia da, baina egoera orokorra da.

Ez duzue hiruko gobernu osatzea lortu. Non dira desdostasunak eta nola ikusten duzu gobernu gutxiengoan?

Hainbat azpiegituren proiektuetan diferentziak izateaz gain, ogasuna edo zergen kudeaketan eta bilketan diferentziak ditugu. Desadostasuna, oro har, programan izan da, baditugu balio komun batzuk eta badauzkagu adostasunak, Jauraritzaren oinarri direnak, baina programaren ikuspegitik desadostasunak ditugu. Edonola ere, Batzar Nagusietan EB-Aralar abstenitu izana aurrerapausoa bada. Bai haiek eta bai gu kontziente gara horretaz, alegia EAJren hautagaiari bidea erraztu diotela ahaldu nagusia izateko.

Gobernu ez da egonkorra. Gai sozialetan talka egiten duzue EB-Aralarrekin. EB du gobernuaren giltza antza.

Baina egonkortasuna ez da zalantzarikoa gai sozialetan talka egiten dugulako. Politikagintza ezin da talka estrategiaren ikuspegitik planteatu. Gure apustua hirukoa osatzea izan da. Gipuzkoan ere akordioa bilatu dugu. Alderdi bakoitzak bere gizarte eredu dauka eta hori aurkeztu dio gizarteari. Gehiengo osorik gabe ari gara eta horrek ezinbestean akordio berriak bilatzera behartzen gaitu. Areago, ahalegina alderdi guztien artean egin behar dugu. Niretzat, hala ere, landu beharreko aukera, egokiena, EB-Aralarrekin ikusten dut. Jauraritzan ere diferentzia programatikoa daude EAJ-EA eta EBren artean, baina programa komun bat eta akordioa lortu zuten. Hori da bidea. Hori da baita ere Gipuzkoan etorkizuneko apustua.

Udaletako indar politikoaren korrelazioa aldatzen ari da Gipuzkoan. Y grekoa, Pasaia kanpoko portua eta erraste plantaren proiektuek ez al dute egoera gatazkatsua areagotuko Gipuzkoan?

Ez zait iruditzen, eta noski, ez dut horrelakorik gertatzea nahi. Nire ziurtasuna erakunde bakoitzak bere eskuduntza izatea da. Azpiegitura horiek aurrera ateratzeko unean, erabakitze unean, eskuduntzak non dauden

Markel Olano

• TERMOMETROA •

zehaztea da kontua. Pasaiko kanpo-ko portua egiteko orduan Estatuak du eskuduntza nagusia, gainerako erakundeek parte hartu beharko genuke, baina eskuduntza Estatuarena da. Gipuzkoan egitekoa den Y grekoan Jaurilaritzak du ardura nagusia, udalek eta kasuon Aldundiak ere edukiko dugu gurea. Nik proiektuek oposizioa izatea zilegi ikusten dut, baina bakoitzak ezin du era boluntaristaz jardun, denari aurre egin diezaiokeen bezala jokatz. Erakunde bakoitzak daukan eskuduntzaren arabera eragin dezake proiektuan, eta ezin dugu alarma sortu eta orain arte zehaztu diren plangintza guztiak hankaz gora jar daitekeenik pentsatu. Herritarrei proiektuen berri eman behar zaie. Errauste plantaren kasuan zehaztu dugu non dagoen ardura nagusia. Jakina, herritarrek kezkatuta daude zabor bilketaren arazoarekin eta irtenbideak eskaini behar zaizkie. Baina hartutako konpromisoak bere horretan mantenduko dira, aldaketarik dagoen edo ez, jarduerak berak argituko du, ez dugu orain arteko bidea baztertu behar denik esateko arrazoirik, ezta norabidea aldatzeko ere.

“ANVren zerrendak bidegabeki ilegaltatuak izan dira” esan duzu. Zure gobernuak zer egin dezake justizia egiteko?

Hori esan dut eta aitortu dut publikoki ANVko ordezkariekin batzartu garela. Aste honetan ere beste bilera bat izatea espero dugu, gure konpromisoa datozen lau urteetan elkarrizketa garatzeko egitura moduko bat finkatzea da. Horrek izango duen definizioa eurekin hitzartu behar dugu. Gure konpromisoa sakona da eta elkarrizketak izatea du helburu. Hortik aurrera eman beha-

rreko urratsak aztertu behar ditugu. Batzar Nagusietan parte hartzeari dagokionean ez dira errazak izango, eta hori eurek ere onartu digute. Ikuspegi hori euren da dena den, ez nire, udaletan parte hartzeko formula bat izan daiteke, baina Batzar Nagusietan formula hori konplikatu da.

**“Izan ditugun erasoak
EAJren aurka izan dira,
EAJ osoak hartu ditu, eta
izan ditzakegun arrakasta
edo porrotak EAJrenak
dira eta izango dira”**

Orain arte EAJn ez zegoen beste jarraia bat dagoela zure eskutik, esango nuke nik.

Zure inpresioa hori bada...! Inpresioak inpresio, aizu! Nire inpresioa da EAJ bat dela. EAJn ikuspegi diferenteak eta eztabaidak izan daitezke, baina ez dut onartzen bi EAJ daudela esatea, ez alderdian zatiketa dagoenik. Jarrera pertsonalak izan daitezke, giza talde eta alderdi guztietan daude, baina kasuon EAJren eta EAJren babesaren duen gobernu honen izenean garbi utzi nahi dut nondik natorren eta zer ordezkatzaren dudan. Halaber, gipuzkoar guztiak ordezkatzaren ahaleginduko naiz.

Ez al zaitu kezkatzen zure jarraitzaileekin kritikoak direnek –PSEko eta PPko oposizioak– gobernuaren higadura modukoa eragiteak bake eta normalizazio prozesuaren egoera tarteko?

Higadura guretzat zer den argitu nahi nuke. Gure ustez hiritarren aurrean ahuldadea litzateke erreferentzialtasun

politikoa galdu dugun inpresioa hedatzea eta onartzea, alegia, herritarrek eskaini diguten konfiantza hori bere horretan galdu egin dela onartzea, hiritarren aurrean porrot egin dugula litzateke higaduraren definizioa. Hiritarrek garbi dute Euskal Herrian oso arazo sakonak daudela, hamarkadak daramatzagu arazoak konpondu nahian, herritarrek emaitzak ere testuinguru honetan baloratzen dituzte, jendeak ez du exijitzen lau urteetan arazo guztiak konpontzea, elkarrizketa lantzeko jarrera egokia eskatzen digu. Gaurko gizarteak jendearekin egotea, hitz egitea, jendea entzutea eskertzen du bereziki, eta zeregin horretan lidergo bat finkatzea eta urratsak ematea. Gizarteak hori guztia zuzen hautematen badu higadurarik ez dago.

Inpresioak inpresio, hona azkena: hauteskunde kanpaina hasi zenean EAJko Egibarren sektorea galtzen hasi zen. Markel Olano ahaldun nagusia hautaturik Egibarren sektorea garaile aterata da.

Niri ez zait EAJn sektoreei buruz hitz egitea gustatzen. Ikuspegi ezberdinak izan daitezke, alderdieraren barruan behar bezalako elkarrizketak eta eztabaidak daude, alderdi guztietan bezala. Eta egongo da eta hori oso aberasgarria da. Sektoreak eta pertsonak aipatzea ez ditut gustuko hala ere. Guk izan ditugun erasoak EAJren aurka izan dira, EAJ osoak hartu ditu, eta izan ditzakegun arrakasta edo porrotak EAJrenak dira eta izango dira. Nik EAJko partaidetza jotzen dut nire burua. Kasu honetan, gainera, bi alderdien ordezkaria naiz eta Gipuzkoa osoko ordezkari nagusia. Beraz, urrun nago balorazio horietatik. ■



UZTARTZA
Aterpetxea • Jaitetxea

Herriko plaza 7 - 20150 Aduna

Tlfnoa: 943 69 34 81

Eguneko menua 9,50 €

Asteburuko menua 18 €

Asteburutan karta